BEASAINGO UDALA

ESP. KODEA.	**2026PROB0005**
ESPEDIENTEA	**BEASAINGO FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 BARNE URBANIZAZIOKO ZOLADURA BERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEA**
TITULARRA	BEASAINGO UDALA. LURRALDE SAILA
TOKIA	**FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24, 20200 BEASAIN, GIPUZKOA**

BEASAINGO FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 BARNE URBANIZAZIOKO ZOLADURA BERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 28. artikuluak jasotzen duenarekin bat, aipatu kontratuaren sail sustatzailearen arduradun politikoak (Hirigintza), TXOSTEN hau burutzen du:

Lizitazioaren bidez bete behar da proiektatutako kontratua:, **BEASAINGO FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 BARNE URBANIZAZIOKO ZOLADURA BERRITZEKO OBRAK**.

1. **Kontratuaren xedea:** izenburuan ezarritakoa. Kontratua ez dugu sortatan banatu obra unitate funtzional zatiezina delako eta ezin delako zatika gauzatu. Izan ere, 99. artikuluko 3b) puntuan adierazitako moduan, kontratuaren xede diren prestazioak bereizteak kontratua teknikoki behar bezala gauzatzea eragotziko luke.

   Kasu honetan azpimarragarria da obraren berezitasuna. FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24-ko garajeetako jabekideek iragazgaizteko obrak burutuko dituzte eta kontratazio honek, iragazgaizte lanak burutu eta jarraian, zortasun publikoa duen garaje gaineko zoladura gauzatzea soilik aurreikusten du.

   Aurrekari hau kontuan izanik eta zortasun publikoak duten zoru pribatuetako zoladuren mantenua, berrikuntza eta konponketak Udalaren ardura izanik, FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 garajeetako jabekideek garajeak iragazgaizteko aurreikusitako obra lanak ezin dira ulertu egungo zoladura zaharra eraitsi eta eraberritu gabe. Modu berean, nabarmendu behar da egungo FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 gaineko zoladura zaharkitua dagoela eta aldatzea beharrezkoa dela.

   Zentzu horretan, Udalak bere ardura hartuta, dagokion zoladuraren eraberriketa kontratazio espediente honetan jorratzen du.

2. **Lizitazio prozedura aukeratzea :** SPKL-ko 131.2 artikuluak honakoa dio: kontratazio organoek normalean prozedura irekia edo murriztua erabiliko dute. Kasu honetan prozedura ireki bidez esleituko da, ez baitago kaudimen gehigarri bat eskatzeko edo kontratuaren atalen bat negoziatzeko arrazoirik. Ondorioz, edozein enpresak kontratazioan parte har dezake, betiere bere kontratatzeko gaitasuna eta kontratuaren xedea burutzeko eskatzen diren kaudimena eta gaikuntzak egiaztatzen baditu.

ESKU05f020f2-a884-4364-9a0e-03813347fc77

3. **Epea**: 16 aste guztira zuinketa akta sinatzen denetik.

4. **Prozedura eta izapidetzea: ireki arrunta, ez arau armonizatupeko kontratua eta izapidetze arrunta.**
   Hautaketa arrazoiak:
   - Prezioa: kontratuaren balio zenbatetsia 160.331,41 € **BEZik gabe**
   - Kontratu motaren hautaketa:
     9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 13. artikuluak obra motako kontratuak Legeko I Eranskinean zehazten direla adierazten da, eta obra mota hau bertan atxikita dago.

     Ondorioz, obra kontratu baten aurrean gaudela ondorioztatzen da.

     - Aukeratutako esleipen irizpideak:

       - Formulen aplikazio bidezko irizpideak: %55
       - Automatikoki baloratu ezin diren baloraketa irizpideak: %45

5. **Lizitazio elektronikoa:** Bai, Euskadiko kontratazio-plataformaren barruan, kontratatzailearen profila.

6. **Sortetan banatzea:** Obrak ezin dira sortetan banandu, Andre Mari 9ko garajeetako jabekideek iragazgaizteko obrak burutuko dituzte eta kontratazio honek, iragazgaizte lanak burutu eta jarraian, zortasun publikoa duen garaje gaineko zoladura gauzatzea soilik aurreikusten du, lan horiek kontratista bakar batek burutu beharrekoak direlarik.

   Esleipen irizpideak: Prezio eta azterketa erlazio onenean oinarritutako irizpideak erabilita burutuko da kontratuaren esleipena.

   6.1. Automatikoki ebaluatu ezin diren balorazio-irizpideak (45 puntu)

   OBREN AZALPENA
   Egikaritze-proiektuan ezartzen den bezala, urbanizazio-obren kontratazio hau FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24 eraikineko garaje gaineko zortasun publikoa duen zoladura- eta errementaritza-partidak gauzatzeari dagokio, jabeen erkidegoak berak FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24ko garajeak iragazgaizteko lanak egin ondoren.

   FORU KALEA 1-3-5-7 ETA NEKOLALDE KALEA 18-20-22-24ko garajeak iragazgaizteko obrak zehazten dituen proiektua kontratazio honen egikaritze-proiektuaren I. eranskin gisa erantsi da. Proiektu hori informazio-eranskin gisa sartu da, jarduketa-obrak ikuspegi integral batetik ulertu behar direlako, nahiz eta kontratazio honetan zoladurari eta errementaritzari buruzko obrak baino ez diren kontratatzen.

   Azpimarratzekoa da erantsitako proiektuak informazio gisa definitzen dituen gainerako obrak jabeen erkidegoak kontratatu dituela jada.

   Hasierako premisa gisa, bi obrek jarraiak izan behar dira denboran, eta kontratazio honi dagozkion obren hasiera eta jabeen erkidegoak egindako obrak gainjarri behar dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da lanak egiteko behar den koordinazioa eta plangintza baloratzea (jabeek garajeak iragazgaiztea eta zoladura- eta errementaritza-ko udal obrak egitea).

ESKU05f020f2-a884-4364-9a0e-038133347fc77

Horregatik, atal honetan beharrezkotzat jotzen da honako hauek aurkeztea eta baloratzea:

- Jabeen komunitateko obren eta kontratazio honen xede diren obren arteko koordinazioa eta plangintza aztertzea eta definitzea.

  Zehazki, honako gai hauek hartuko dira kontuan, gutxienez:

  - Bi obren koordinaziorako eta jarraitutasunerako puntu kritikoen analisia eta definizioa, kontuan hartu beharreko eraginak eta ezarri beharreko neurri zuzentzaileen definizioa.
  - Obren analisia eta plangintza, Gannt diagramaren bidez.
  - Obrarako sarbideen, okupatutako azaleren eta pilaketa-eremuen azterketa eta definizioa. Hautemandako bateraezintasunak eta proposatutako neurri zuzentzaileak zehaztu beharko dira.

Aurkeztu beharreko memoriak gehienez 6 orrialde izango ditu, arial 10 eta lerroartea 1.5. Karatulak eta aurkibideak ez dira orrialdeen gehieneko kopuruaren zati gisa zenbatuko. Aurkeztutako memoriak ezarritako gehieneko orrialde-kopurua gainditzen badu, muga gainditzen duten orrialdeak ez dira kontuan hartuko balorazio-ondorioetarako.

6.2. Formula automatikoen bidez neur daitezkeen irizpideak. 55 puntu.

6.2.1. Eskaintza ekonomikoa. 55 puntu.

Puntuazioa ezartzeko, honela banatuko da da:

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Bmax <= 50% >>> P = 200 x B
Bmax > 50% >>> P = 100 x B / Bmax

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = 1 - (Eskainitako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua)

Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

Formula hori hautatu da ez duelako saturazio-atalaserik ezartzen, ez dielako punturik ematen lizitazio-mota berdintzen duten eskaintzei, ez delako lauegia, eta ez duelako puntuazio-alde handiegirik eskaintzen baja-diferentzia txikiei dagokienez.

Dagokion ondorioetarako,

Lurralde Saileko Zerbitzuburua

EKS | CSV: ESKU05f020f2-a884-4364-9a0e-03813347fc77
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026PROB0005-Justifikazio txostena/Informe justificativo ()

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Beasaingo udala

Eskisabel Del Bosque, Jon

Lurralde Saileko Zerbitzuburua
Jefe de Servicios del Área de Territorio

Data / Fecha: 2026/09/25 09:02:33